

## **ZARAUTZ / Sanz Enea liburutegiak egitarau zabala prestatu du hilabete honetarako**

Sanz Enea kultur etxeko liburutegiak apirileko egitarau zabala du prestatutik. Apirilaren 2an, Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna izan zen, Hans Christian Andersen idazlearen jaiotze eguna ospatzeko. Urtero, apirilaren 23an, Liburuaren Eguna ospatzen da, Cervantes, eta Shakespeare eta Garcilaso de la Vega idazleen heriotzaren eguna gogoratuz. Aurten, 2012an, Charles Dickens, jaio zela, 200. urteurrena betetzen da. Hori dela eta, Sanz Enea Liburutegiak irakurgida bat prestatu du. Bertan, liburuak, audioliburuak, pelikulak eta web orrialdeak aholkatzen dira. Bestalde, apirilaren 26an, Gernikako bonbardaketaren 75. urteurrena betetzen dela eta, liburutegiak informazio-puntua, erakusgai jarriko du. Adierazi ere, marea horia kanpainarekin bateginik, liburutegiak, Liburuaren egunean, informazioa banatuko duela, '12 arrazoi liburutegi publikoak maitatzeko' lemapean.